AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5671

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Teknikari laguntzaileen kidegoko Proiektu Mekanikoen Garapeneko Goi-mailako Teknikari gisa edo Fabrikazio Mekaniko Diseinuko Goi-mailako Teknikari gisa aritzeko hautaketa-prozesuetarako deialdietarako behin betiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duena, oposizio-faseko lehen ariketa egiteko data, lekua eta ordua ezartzen dituena.

2010eko maiatzaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Agindua. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuetako oinarri orokorrak onartu ziren.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduaren bidez, Teknikari laguntzaileen kidegoko Proiektu Mekanikoen Garapeneko Goi-mailako Teknikari gisa edo Fabrikazio Mekaniko Diseinuko Goi-mailako Teknikari gisa aritzeko hautaketa-prozesuetarako deia egin zen.

Aipatutako oinarri orokorrek, 8. atalean, ezartzen zuten eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik gehienez 20 egunera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak onartu behar zuela hautaketa prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak.

Zerrenda horiek onartuta eta deialdiaren oinarrietan adierazitako lekuetan argitaratuta, 10 egun balioduneko epea ireki zen zerrenda horien aurka erreklamazioak jartzeko.

Erreklamazioetarako epea bukatuta eta aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, oinarri orokorren arabera, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartu behar da, oposizio-faseko lehen ariketa egiteko data, lekua eta ordua ezarri behar dira, eta lehen ariketaren bigarren zatia osatuko duten galderek zer nolakoak izango diren argitaratu behar da.

Hori dena kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko irailaren 13ko Aginduaren bidez dei eginiko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Teknikari laguntzaileen kidegoko Proiektu Mekanikoen Garapeneko Teknikari gisa edo Fabrikazio Mekaniko Diseinuko Goi-mailako Teknikari gisa aritzeko hautaketa-prozesuetarako deialdietarako behin betiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/ope helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda hau argitaratzeko agintzea (aipatutako helbide elektronikoan kontsultak egiteko, NANa eta eskabidearen erreferentzia-zenbakia sartu beharko dira):

a) Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; Donostia kalea, 1 (Lakua). 01010 PK.

b) Bilbao: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; Rekalde zumarkalea, 18. 48009 PK.

c) Donostia-San Sebastián: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; San Bartolome kalea, 28. 20007 PK.

d) Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea; Unibertsitate Zaharra. 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Oposizio-faseko lehen ariketaren zati biak 2012ko urtarrilaren 28an, Landako Gunean (Landako etorbidea, 6 - Durango, Bizkaia), eta 16:00etan hasita egingo direla ezartzea.

Laugarren artikulua.– 2011ko azaroaren 22an jakinaraztea, bigarren artikuluan aipaturiko helbidean, lehen ariketaren bigarren zatia zer eratako galderez osatuta egongo den.

Bosgarren artikulua.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta hurrengo artikuluen arabera. Errekurtsoari erantzuna ematen ez bazaio, ezezkotzat hartu beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.